

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### LURRALDE OREKAREN SAILA

**50/2020 Foru Agindua, martxoaren 6koa, baimentzen duena Julio Marín Ugedoren bitarteko izendapena Urkabustaizko Udaleko idazkari lanpostuan jarduteko, haren titularra berriro laneratu arte**

Urkabustaizko Udalak atal honi jakinarazi zion ezen Korporazioko idazkaria, María Luisa Velasco Irusta andrea, lanerako aldi bateko ezgaitasun egoeran dagoela.

Ondorioz, eta udala izapideak egiten ari zen bitartean lanpostua bitarteko izendapenez betetzeko, otsailaren 26ko 45/2020 Foru Aginduz, bertako karrerako funtzionario den José Cruz Zabala Urtaran izendatu zen behin-behingoan idazkaritza lanpostuari dagozkion egitekoak betetzeko.

Martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak, gaikuntza nazionalako toki administrazioko funtzionarioen lege araubidea arautzen duenak, 53. artikuluen lehenengo apartatua haxe xedatzen du:

“1. Ezinezkoa denean gordetako lanpostuak gaikuntza nazionalako toki administrazioko funtzionarioen bidez betetzea, eta urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuak 10.4 artikuluan xedatutakoa gorabehera, toki korporazioek autonomia erkidegoari proposatu ahal izango diote, betiere berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publizitate irizpideak betez, bitarteko funtzionario bat izenda dezala, zeinak A1 azpitaldera sartzeko eskatutako titulua eduki beharko baitu.”

Hala, Urkabustaizko Udalak Julio Marín Ugedo jauna proposatu du aipatutako lanpostua betetzeko, A1 azpitaldera sartzeko eskatzen den titulua baitu eta proposatutako lanpostua betetzea onartu baitu 2020ko martxoaren 3tik aurrerako ondorioekin.

Nolanahi ere, aintzat hartu behar da aipatutako errege dekretuak 54. artikuluan lanpostua betetzearen edo lanera itzultzearen ondorioei buruz xedatutakoa:

“Baldin behin-behineko edo bitarteko funtzionario batek betetzen badu lanpostua, hura lanpostutik kentzea ekarriko dute, automatikoki, honako hauek: lanpostua behin betiko betetzeak, kapitulu honetan jasotako kasuetan titularra lanera itzultzeak edo behin-behineko izendapen bat, zerbitzu eginkizunetakoa edo metaketa bidezkoa, egiteak.”

Bat etorritik estatu osorako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 53. artikuluan xedatutakoarekin.

128/2018 Errege Dekretu horren hirugarren xedapen gehigarrian arautua betez, eta Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren 52/1992 Foru Arauaren 40. artikuluan jasotzen diren eskudantzien ondorioz, eta nire eskumenekoak diren ahalak baliatuz, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. 2020ko martxoaren 3tik aurrerako ondorioekin, izendapena ematea Julio Marín Ugedo jaunari, Urkabustaizko Udaleko Idazkaritza postuari dagozkion eginkizunetan jardun dezan bitarteko funtzionario bezala, haren titularra berriro laneratu arte. Birlaneratze horren berri eman beharko dio udalak sail honi, ondorio egokietarako.

Bigarrena. Foru agindu hau jakinaraztea Urkabustaizko Udalarari eta Eusko Jaurlaritzaren Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta hura ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko martxoaren 6a

*Lurralde Oreekaren Saileko foru diputatua*  
**IRMA BASTERRA UGARRIZA**

*Lurralde Oreekaren zuzendaria*  
**JESUS MARÍA GUINEA DÍAZ DE OTALORA**